

**JOSE ANTONIO ZAMALLOA ,
BIZKAIKO SAGARDOGILEEN
ELKARTEKO PRESIDENTEA**

«Sagardoaren etorkizuna sagastietan dago»

Bertako sagarraren ekoizpena indartu behar dela uste du, eta hemengo ekoizpenarekin egindako sagardoiari labela jarri behar zaiola dio Jose Antonio Zamalloak.

Zornotzako Uxarte baserriko semea da Jose Antonio Zamalloa. Han dauka jarria sagardotegia, eta bertako mahaien bueltan aritu da hizketan.

Nolako da aurtengo sagardoa?

Erraz edatekoa da, atsegina, arina. Usain interesgarriak antzeman dizkiet nik.


Hemengo sagarren aldeko erabateko apustua egiten duzu?

Jakina. Ekoizlea ere banaiz, eta Bizkaian araua daukagu jarrita: sagardoa bertako sagarrekin egin behar da. Filosofia hori ez da apeta hutsa. Bide bakarra da. Hemengo sagarra ez badugu indartzen, eta

ez baditugu kontuan hartzen bere ezaugarriak, ez gara ari ezer egiten. Absurdoa litzateke kanpoko sagarrekin egitea, gure lehen sektorea kontuan hartu gabe.

Zein dira Bizkaiko Sagardogileen Elkartearen erronkak?

Nahi genukeena baino mantoago doa. Ez da ekoizleen borondatea soilik, administrazioak berea ere egin behar du. Araudia sortu behar da. Txarto ez doa, baina lan batzuk egin barik daude. Uste genuen udaberrirako eginak egongo zirela, baina egin barik daude. Kezkasortzen digu horrek. Gero berriz antolatuta behar baitira sagastiak,



AITOR MANTEROLA

ekoizleak eta beste hainbat gauza. Mantoegi doa prozesua.

Noiz jarriko diozue label marka?

Beti esaten dugu hurrengo urtean jarriko diogula, baina honezkero ez naiz ausartzen datarik jartzten. Gure ogia da, eta galtzen ari gara. Sasoi ez bada egiten, etekina galtzen ari gara, gure produktua nabarmendu egingo duelako label izaerak.

Merkatu berrietan sartzea ez al da helburua elkartearentzat?

Ez, ez. Hemen badugu nahikoa kontsumitzaile. Baina ezinbestekoa da hemengo sagardoa nabarmentzea. Merkaturako guztia ez baita sagardoa. Antolatuta barik dago merkaturak.

**Iruzur asko egiten al da sagardoa-
ren bueltan?**

Ez da iruzurra. Inor ez dago legez kanpo, baina gauza batzuk argitu egin behar dira.

Bizkaiko sagardoa Gipuzkoakoaren itzalean al dago?

Maila batean bai. Baina konplexuak galduta daude momentu honetan. Gu gutxiago gara, eta produktioa ere txikiagoa daukagu, beraz, erreferentzialtasuna ez izatea normala da. Baina tresna berdinekin ari gara, eta badakigu nola egiten den sagardoa. Ez da inorena eskusibotasuna. Historikoki galduta egin da ekoizpena, izan ere, aurreko belaunaldietan asko ekoizten zen. Baina posible da maila berean jartzea, arauak onartu eta gauzak bere lekuan jartzen badira. Ekoizpena salbatuta legoke, baina ez dit balio egundoko

ekoizpena egitea hemengo sagardoaren presentzia sinbolikoa bada. Hori ez da ekoizpen handia izatea. Eraldaketa handia behar dugu ekoizpen aldetik. Uste dut bai Bizkaian, bai Gipuzkoan hemengo sagarraren ekoizpena galtzen ari garela. Denok egin beharko genuke zerbait; baina erakundeek bideratu beharko lukete gaia.

Zenbat ekoizle zarete orain?

11 gara. Ez da asko, baina hor gaude. Irizpide jakin batzuk daukagu, eta uste dut oso zuzenak direla irizpideok. Badugu urteetan lortutako ospea, eta ondo baloratuta gaude, sinesgarritasuna daukagu. Ez dugu ezer ezkututzen.

Eskualdeka nola zaudete banatuta?

Antzera. Lea-Artibain gaude, Mungian, Durangaldean, Arratia... Hemen, Bizkaian, badaude sagardotegiak izan gabe halako izaera daukaten ostalaritza lekuak. Oztupo handia dira guretzat. Etorkizunean modu bat egon beharko luke bi jarduerak horiek bereizteko, beste gauza askorekin gertatzen den bezala. Bakoitzari bere lizentzia eman behar zaio.

Kalte egiten al dizuete?

Bai, neurri batean. Sagardotegia izateko zerbaite izan beharra dago. Ez da aski sagardo botila bat ateratzea. Ekoizpenari ematen diogu guk garrantzia, eta hori zer den ez dakiten asko dabilta sagardogile moduan.

Ekoizleen artean, gazteak ba al daude?

Sagar munduan eta baserri munduan atzerantz goaz ekoizpenean. Eta gauzak ez badira argitzen, gaitza da norbaiti esatea sagasti hektarea bat jartzeko. Jarriko du merezi duenean, eta horretarako arau zehatzak jarri behar dira, etekinak ateratzeko. Sagarrari balioa emateko moduren bat balego, gutiz aldatuko litzateke egoera, eta ekoizle asko sartuko lirateke. Lehen sektoreak pizgarriren bat behar du. Eta gauzak ondo egiten badira, ez da denbora asko beharko aldaketa gertatzeko. Gauzak ondo egin ez direlako, hainbat esperientzia txar izan da azken urteetan. Sagardoaren etorkizuna ez dago bodegan, sagastian dauka geroa. Ez dit balio sagarra eta mostoa Normandiatik ekartzea.

GARTZIATEGI
TOLARE SAGARDOEGIA
XVI. mendetik
Sagardotegia
BITTOR LIZEAGA
Gartziategi Baserria - Tf.: 943 46 96 74 - ASTIGARRAGA - www.gartziategi.com

OTSYA-ENEA
TOLARE SAGARDOEGIA
Sagardoa
botilan salgai
-Sidras Otsua-Enea S.L.-
Osiñaga auzoa • Tel: 943 55 68 94 • HERNANI

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Berriak
Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amallobieta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Olina
Lapurriketa Sagardoa
94 633 80 39

Galika
Etxebarria Sagardoa
Itxar Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Galika
Malgarrazaga Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Gizaburua
Laneko Koop
Learitbal Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Iurri
Isasi Sagardoa
Rufino Isasi Arrieta
Tel.: 94 681 60 44

Lezama
Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguen Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Martina-Komel
Axpe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Mendaza
Sebastiano Sagardoa
Anton Aresell Elguen
Tel.: 94 684 26 42

Muxika
Kandi Sagardoa
Sat Kandi
Tel.: 94 625 80 40

Uxarte
Uxarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15



**bizkaiko
sagardoa**